


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak dauzkan helburuak lortu ahal izateko, beste enpresa edo elkarte batzuekin elkartuko gara. Gainera, elkarte horiek baliabideak eskuratzeko eta gastuak murrizteko aukera emango digute. Izan ere, gure enpresan ez ditugunez ondasunak zuzenean ekoiztuko, beste enpresekin elkarlana egin beharko dugu. Ondasunak ez ekoiztean ekoizpen prozesuan inbertitu beharreko dirua aurrestuko dugu, gure enpresaren hedapena ahalbidetuz.

Esan beharra dago gure enpresak baliabide materialak eta ez-materialak dituela. Baliabide materialak bigarren eskuko arropa, liburuak eta produktu ekologikoak dira, eta haiek saltzeko honako elkarteekin lan egingo dugu: Koopera (bigarren eskuko arropa), Re-Read (bigarren eskuko liburuak), Bizislow (produktu ekologikoak), eta Alternativa3 (produktu ekologikoak). Bestalde, baliabide ez-materialak, arazo sozialei buruzko hitzaldiak eta tailerrak dira, eta antolatzeko honako elkarteekin harremanetan jarriko gara: Aizu, Ortzadar Igtb eta Emakunde. Hala ere, enpresa



hasten den heinean, elkarte gehiagorekin jarri gaitzke harremanetan.